

## **GURE BIZITZAK ERDIGUNERATZEKO AGENDA PARTEKATUA ETA BURUJABETZAK:**

### ***Bizitza erdigunean jartzea burujabetza kontua da***

#### **Bilgune Feministaren ponentzia**

### **1. ZERI EGIN BEHAR DIOGU AURRE? EGOERAREN ANALISIA**

Ezagutzen dugun mundua desegiten ari da. Sistema kapitalistak bere mugekin topo egin du:

- 1) muga ekonomikoa: kapitalismoak ezin ditu ahalbidetu orain arteko hazkuntza tasak;
- 2) muga ekologikoa: sistemak aurrera egin ahal izateko baliabideak agortu ditu.
- 3) muga soziala: aurrekaririk gabeko erreprodukzio sozialeko krisi batera eramán gaituzte, gero eta herri sektore handiagoen eskusio prozesuak bizitzen ari gara.

Muga horien aurrean, sistema birfundatze ziklo batean dago. Aurrerabidearen, berdintasunaren eta ongizatearen promesekin seduzitu nahi gintuen kapitalismo batetik, maskararik gabe, gutxi batzuentzako lekua besterik ez dagoela aitortzen duen kapitalismo batera igarotzen ari gara. Botere korporatiboak gobernatzen dituen zelaiak areagotzen ari dira; lurralde eremu eta baliabide berriak bereganatu, esplotaziorako forma berriak sortu eta gure bizitzen prekarizazioa muturreraino eramaten duen bitartean. Bere bizi-iraupena bermatzeko (hau da, kapitalaren metatze prozesuak berrezartzeko eta baliabideen gaineko kontrola bereganatzeko erronkan), langileen esplotazioan, politika arrazistetan, zein paktu patriarkaletan sakontzen ari da, indarkeria eta autoritarismoa erabiliz eta dominazio anitzeko sistema baten aurrean gaudela agerian utziz. Sistema hau biozida dela argi utziz.

- Muga ekonomikoak gaintzeko merkantilizazio prozesuak areagotzen ari dira (osasan sistemaren pribatizazio ahaleginak, sabel alokairua, haziei prezioa jartzea...) eta estatua ardura sozialez husten ari da, eskubideen galera izugarria emanez: pentsio sistemaren erreforma, EAJren gobernuak abiatu dituen DSBE-ren (Diru-sarrerak bermatzeko errenta) murrizketa, lan erreformak, europako politika ekonomiko oso zorrotzak...

- Mugimendu ekologistak hainbatetan adierazi izan digun bezala, ekosistemaren mugak gaintzeko hegoaldeko herrialdeen espoliazioaren eta desjabetzearen bitartez edota etorkizuneko belaunaldien bizkar bermatu izan dira, sistemak aurrera egin ahal izateko baliabide materialak. Orain politika neokolonialean sakontzen ari dira, ~~gutxienez~~, nazioarteko merkataritza eta inbertsio itunen bidez (TTIP, CETA...), lurra defendatzen ari diren indigenen aurkako errepresioa eta erailketak bermatuz, eta erauzketa-industriak nonahi (fracking delakoa) eta nolanahi (Amazoniaren sutea) bultzatuz.

- Muga sozialak biziagotu nahian dabil sistema. Feminismoetatik hainbatetan esan dugun bezala historikoki emakumeon (eta komunitateen) lan erreproduktiboaren gainean eraiki den sistema hau, ahaleginak egiten ari da berriz ere erabat errentagarriak ez zaizkion hainbat jardun emakumeon ardurapean jartzeko, pribatizazioen bidez (erresidentzien edo haur-eskolen pribatizazioak...), esklabutza

eredu berriak ahalbidetuz (etxeke langileak, sasoiko langileak, migranteen lan-egoerak) eta emakumeen betebeharrak moralak etxera lotuz.

Bizitzaren merkantilizazio horren ondorioz, jendartearen sektore askori gero eta zailagoa zaigu bizibide iraunkorrak eskuratzea. Azterketa feminista batetik ikusten duguna zera da: bizitzak sostengatzeko ardura feminizatzen jarraitzen da kapitala metatzeari jarraitzeko estrategia politiko-ekonomiko gisa. Finantza-krisiarekin batera genero-arduraren naturalizazioan sakondu da eta, berriz ere, familiaren eta, zehazki, emakumeen esku geratzen ari da biziraupenaren gaineko ardura. Sexuaren arabera lanaren banaketa areagotzen ari da, enplegua eta ez ordaindutako zaintza lanen arteko harremana hierarkizatua da, baita merkatuaren eta etheen artekoa ere. Hierarkia horiek gero eta gehiago markatzen dituzte klase, arraza eta migrazio egoerak. Zaintza eredu pribatizatua, familiarizatua, feminizatua eta esplotazioan oinarritua dugu, eta honek Bizitza vs. Kapitala gatazka isilarazten du. Eredu horrek zaintza-krisia dakar ezinbestez, eta jendarteak kolektiboki bere egiten ez duen ardura hori emakume migratuek betetzen dute maiz, esplotazio egoera gogorretan askok.

Horrek guztiak herritarron eta emakumeon\* bizitzetan eragin zuzena dauka. Herritartasun eskubideak dira horren adibideetako bat: eredu misogino, klasista eta arrazistan oinarrituta; lan merkatu formalean egiten den kontribuzioaren, nazionalitatearen edota familia heteropatriarkalaren kontura eskuratzen dira eskubideak hemen.

Beste alde batetik, bizitzaren prekarizazio basatia garatzen ari da eta hortaz, gure bizitzen gaineko kontrola galdu dugu aspektu askotan, egiturazko segurtasunik eza hedatuz. Oinarrizko baliabideak lortzeko zailtasun izugarriak ditugu, eta horiek eskura izanda ere, ez dakigu aurrerantzean izango ditugun ala ez, ezta zenbat denboraz ere. Askotan esan dugu, pobrezia emakume\* aurpegia daukala: soldata arrakala, miseriazko pentsioak, pobrezia energetikoa, etxegabeteak... gehien pairatzen ditugunak geu gara. Badakigu eta, eredu ekonomiko hau hedatzen jarraitu ahal izateko, bideetako bat genero desberdinkerietan sakontzea dela, menpeko eta ikusezinak diren esferak garatuz. Horregatik, kapitalismoa suntsitzeko haren ardatz patriarkala jarri behar dugu jo puntuan.

~~Horregatik~~, Kapitalismoaren krisiak hauspotuta, indarkeria matxistaren areagotzea bizi dugu, eta injustizia sistema patriarkalaren jo puntuan gaude. Alde batetik, patriarkatua urrats feministen aurrean oldartzen ari da. Bestetik, argi dago kapitala hedatzeko emakumeen menderakuntza indartu behar dela. Eta bukatzeko, hainbat autorek indarkeria matxista "konpentsazio" moduan azaldu izan dute ere, hau da, gizonen "auto-afirmazio negatibo" moduan: genero rola bete ezinda, senar-autoritate-familiaren sostengu rola mantendu ezin dutenean, emakumeen gaineko kontrola berretsiz auto-afirmatzen dira.

Gainera, produkzio eta kontsumo basatiaren garaian bizi gara. Lan merkatuan aritzen gara, ondoren, gure aisialdian kontsumitzeko. Gure bizi erritmoen azelerazioa nabaria da, naturaren erritmoak eta gure erritmo fisiologikoak gure bizi erritmoekin talkan daude (gauez lan egitea, ordu desegokietan bazkaltzea, lorik ez egitea, atsedetik ez hartzea...). Naturalizatu dugun arren, erlojuaren denbora lan merkatuaren arabera sortutako eraikuntza kulturala da. Produkzioaren denborak ez ditu beste tempo batzuk kontuan hartzen, prozesuena, zaintzena, harreman sexu afektiboena... bizitzaren tempoak finean. Bizitza hori eremu pribatuan, ezkutuan, eusten eta goxatzen jarraitzen dugu, denbora ofizialetik at. Emakumeon\* gorputzetan eta harremanetan, komunitatean, inguru

sozialean erabateko eragina dauka horrek. Enpleguan dihardugun orduei etxeko eta zaintza-lanetan ematen ditugunak gehituta, presentzia edo lanaldi bikoitzak egiten ditugu. Pobreziaren feminizazioa denboran ere gauzatzen da. Hala, parte hartze soziopolitikoan edo militantzian aritzea ezinezko bihurtu da askorentzat.

Horregatik, parean dugun erronkari erantzuteko, gure metodo analitikoak eguneratzea eta testuingurura egokitzea dagokigu. Ekonomiaren dimentsio produktiboa eta erreproduktiboa modu artikulatu batean irakurri behar ditugu, bertatik klase borroka sortzaile, irmo eta eraberritu bat garatu ahal izateko. Izan ere, ukaezina da azken urteotan, borroka sozialak ugaltu egin direla. Azken urteotako mobilizazio historikoak dira horren erakusle; independentistak, pentsionistak, feministak, errefuxiatuen aldeko mugimenduak, errepresioaren aurkakoak edota aurrera eraman diren greba ezberdinak... Horrekin batera, antolaketa komunitarioan, elkar babesteko sareetan eta autogestioan oinarritutako proiektuak ugaltzen ari dira Euskal Herrian, eta erakundeetatik aldaketak hauspotzeko aukera berriak ere sortzen ari dira. Hamarkadetan militante askok egin duten inurri lanaren, antolakuntza eta borrokaren loratzea dira. Sistema menperatzaile, patriarkal, hetero-arautzailea, misogino, kapitalista... horren aurrean, eraldaketarako eta konfrontaziorako subjektu politiko gihartsu gisa agertu zen Mugimendu Feminista. Sistema patriarkalari eta berau sostengatzeko estruktura guztiei, legitimazio orokorra kendu genien. Orduz geroztik, balio zein erakunde patriarkalekiko dagoen kontsentsu sozialaren urraketa azkartu egin da. Hortaz, arauak puskatu eta sortzeko, eraikitzeko, asmatzeko, beldurrari aurre egiteko, komunikatzeko dugun gaitasunean sinesteko eta feminismoaren sokari indartsu tiratzeko garaia da. Ezagutzen dugun mundua aldatzen ari da, eta guri dagokigu aldaketa hori norabidetzea, trantsizio feministaren bidean urratsak emateko.

## 2. NONDIK BEGIRATZEN DUGU?

Horren guztiaren aurrean, bizitza posible egiten duten jardun eta harremanen prozesu multzoari begiratzen diogu (ez soilik enpleguari), bizibideei, izan ere, ekonomiak eta antolamendu soziopolitikoak, bizitza duinak sostengatu behar dituzten egituraketa moduan ulertzen ditugu.

Bizitzeko beharrezkoak diren lan guztiak –merkatuaren bitartekaritzarekin edo gabe-argitara ekarri nahi ditugu. Hain zuzen, fokua erreprodukzioan jartzeak soldatapeko lanetik harago begiratzea ahalbidetzen digu (etxeko ekoizpena, lagun artean elkar babesteko denbora...). Produkzioa-erreprodukzioa banaketa gainditu eta erreprodukzio sozialaren terminoetan pentsatu nahi dugu. Dikotomia hori gainditzean konturatzen gara bizitza berez ez dela gertatzen, hau da, bizitza posiblea da zaindu egiten bada. Ekodependienteak eta interdependienteak gara gure gorputzak materia direlako. Zentzu horretan, bizitza zaurgarria eta finitua da, are eta gehiago zaintzarik gabekoa bada. Ingurugiro sozial eta ekosistemarekiko menpekoak garen heinean, onartu behar dugu honek mugak dituela.

Begirada hori, gainera, interseksionala da. Bakoitzak bere zapalkuntza zehatzetatik hitz egin eta borrokatu behar du, gero hori guztia uztartu eta borroka komunak eraikitzeko. Interseksionalitatea zapalkuntza anitzen elkarrekikotasunetik borroka komun bat sortzea da. Elkargune horietan sortuko baitugu herri honen eraldaketarako jardungo den subjektu politiko poliedriko hori. Mugimendu Feministaren ikaspenetatik eta borroketatik lor dezakegu burujabetza feministaren palanka. Finean, jendartea eraldatzeko behar horrek burujabetzaren beharra dakar.

### **3. ZEIN DA GURE PROPOSAMENA? EUSKAL HERRIAREN BURUJABETZA FEMINISTA**

Dominazio anitzeko (nazio-arraza-sexu-genero-klase...) sistema honetan, Euskal Herriko burujabetza prozesutik abiatuta emakumeon\* askapen prozesua gauzatzeko tresna izan nahi du gure proposamenak. Herri gisa burujabetza politikoa eskuratze hutsak ez duelako berez emakume, bollera edota trans modura burujabe izatea ekarriko. Horregatik, Ondarroako emakume abertzale eta feministen VI. Topaketan, euskal feminismoan gure arbasoek egindako lanaren hariari jarraituz, burujabetza erdiesteko trantsizio prozesua irudikatu genuen eta estrategia emantzipatzailea birkokatu genuen. Egungo sistemari aurre egiteko markoa izendatu genuen: Euskal Herriaren burujabetza feminista. Beraz, ezagutza kolektibotik sortutako proposamena da, urteetako borroken transmisioan ereindakoa, Euskal Herritik eta feminisмотik abiatzen da eta bertan bizi diren herritarren zapalkuntza anitzak aintzat hartuko ditu. Proposamen irekia eta eztabaidatua izan nahi du, elkarlanean oinarritutakoa; eta beharrezko izango zaizkion erakundeen sorrera nahiz herritarren antolakuntza, elkar-babesa eta autogestioa bultzatuko ditu.

#### **3.1. Nondik gauzatu burujabetza feminista?**

Marko politiko hau ez da egoera ideala. Ez da behin-betiko planteamendu bat, baizik eta gure bizitzaren eta herriaren gainean askatasun esparruen berreskurapen prozesu etengabea. Burujabetza feminista bizi nahi dugun bizitzaren inguruan erabakitzeke ahalmena izatea da, eta horretarako, beharrezkoak ditugun bizibideen kontrola izatea; bai produkzio zein erreprodukzio bideen kontrola sozializatzea eta burujabetzak, hain zuzen, bertatik antolatzea.

Prozesu indibidual eta kolektiboa da, lurraldean sustraituta dagoena. Ez dio soilik lurraldeari erreferentzia egiten gorputzetik igarotzen den burujabetza bat delako, gure buruaren jabe izateaz ari garelako. Burujabe izatea gure gorputz eta harreman sexu-afektiboen jabe izatea ere badelako, osasuntsu egoteko bideak jorratzeko aukera izatea ere badelako, norbere kabuz erabakitzeke ahalmena ere badelako. Hala ere, bizitza ez dugu guk bakarrik aurrera ateratzen, bizitzak aurrera egin ahal izateko ezinbestekoak ditu harreman sozial eta ekologiko jakin batzuk. Horregatik, burujabetzak mugak ere baditu. Buruaskitasunaren engainutik urrundu eta elkarrekikotasunean, aniztasunaren aitortzan eta zaintzan sakonduko duen prozesua izan behar da.

Gure gorputzetatik komunitatera egin nahi dugu salto, bide bereizezinak baitira. Herriaren eta gure gorputzen subiranotasuna elkarlotuta daude. Ezin dugu nazioa aldarrikatu eta gure bizitza alde batera utzi; eta alderantziz. Ondorioz, eraiki nahi dugun burujabetza hori kolektiboa ere izan behar da, erreprodukzio soziala ahalbidetu behar baitu. Beraz, burujabetza lurraldean sustraitzen da, lurraldea baita bizitzaren eta gure harremanen ingurunerik hurbilena, baina, baita gure memoria kolektiboarena eta gure historiarena ere. Boteretze prozesu indibidual zein komunitarioak herri moduan burujabe izatera iristeko baliatu behar ditugu.

Burujabetza egunerokotasunean jorratu beharreko zerbait da, hortxe nabaritzen baita botere korporatiboak guregan duen inpaktua; baina baita alternatibak eraikitzeke dugun ahalmena ere. Aspaldi erabaki genuen ez ginela garaipenaren egunaren zain egongo eta egunez egun egingo genituela iraultza txiki-handiak. Bizitza bada jokoan dagoena, berau defendatuko genuela. Hain zuzen ere, bizitzaren aldeko apustu erradikala egitea ez

delako letra larriz idatzitako bizitza aldarrikatzea; baizik eta bizitza duinaren mugen inguruan posizio bat hartzea da. Hau da, ez diguzue abortatzeko eskubidea kenduko, auzokideak ez dituzue kaleratuko, bizibideak ez dituzue pribatizatuko. Bizi-baldintzen okertze orokortua normalizatzen ari garen honetan, feministok eguneroko jardunean jarri dugu arreta: argindarraren faktura puztuan, iristen ez diren bizileku baimenetan, gure borroka negozio bilakatu nahi duten enpresarietan, bortxatzen gaituen senarrear edo bi hilabeterako esplotatuak nahi gaituen lanpostu horretan.

Hortaz, burujabetza, eguneroko gauza zehatz eta arruntenetan gauzatzen da: gure gorputzaz erabakitzeko eskubidean, denboraren banaketan, elkarbizitza ereduetan, edota lanen antolakuntzan. Bizitzako espazio eta dimentsio guztiak erresistentzia eremu bilakatu behar ditugu. Bizitzaren politizazio erradikala eginez, biktima errudun eskematik atera gaitezke: egoteko eta egiteko ditugun moduekin, zapaltzen gaituen sistema erreproduzitu beharrean, irauli egin dezakegu. Azken finean, norberaren kokaleku sozial zein zaurgarritasunaz behin jabetuta, duintasun kolektiboaren atalase berriak ezartzeko prozesuak egingo gaitu burujabe.

Prozesu partekatu honek herrien, gorputzen zein jakintzen kolonializazioarekin amaitzea eskatzen du. Horretarako, ezinbestekoa da sistemaren ikuspegi globala mantentzea, burujabetzaren defentsa borroka internazionalista bat izateko ere bai. Munduko beste herri zapalduen askapen prozesuak ezagutuz eta indartuz: zu askatzean ni askatzen bainaiz eta ni askatzean zu askatzen baitzara. Subjektu zapalduak gara, baina ez gara zapalduak bakarrik eta ez gara zapaldu bakarrik. Horregatik, posizio ez hegemonikoetatik, des-zentratze ariketa bat egin behar dugu gure pribilegio posizioez arduratzeko. Horrek erraztuko du bazterretan gaudenok aliantza politiko eta afektiboak eraikitzea, zapalkuntzak kapitalizatu gabe.

Bukatzeko, burujabetza feminista euskaraz pentsatu eta praktikan jarri nahi dugu. Are gehiago, burujabetza feminista imajinatzen eta gauzatzen lagundu diezaguke euskarak, iruditegi kolektibo baztertzailak deuseztatu eta askatuko gaituen hizkuntza bilakatzuz. Euskara dugu herri honetako jatorrizko hizkuntza, nortasun kolektibo baten adierazpena baita errealitatea modu desberdinean hautemateko eta deskribatzeko tresna ere. Espainiako eta Frantziako estatuen, frankismoaren zein gaur egungo politika linguistiko diskriminatzaileen aurrean, emakumeak izan dira historikoki euskararen transmisioaren arduradunak. Euskara jendartearen eta Mugimendu Feministaren erdigunean kokatuz egin nahi dugu burujabetzaranzko bidea, eta aldi berean, gure mugimenduaren baitan dagoen aniztasuna zaintzea dugu erronka. Euskara zatikatzen gaituen elementua baino, harrera hizkuntza bilakatu dadin, enpatia eta elkar zaintza oinarri hartuta.

### **3.2. Nola gauzatu burujabetza feminista?**

Bizitza erdigunean jartzeko, bizitza eusten duten prozesuen arabera egituratu behar dugu jendartea. Elkarrekikotasun eta elkar zaintzan oinarritutako harremanak behar ditugu, interdependentzia onartu eta modu justuan konpontzeko hautua eginez. Zaintzak eremu pribatutik atera eta ardura kolektiboa sustatu beharra dago, hala gertuko komunitatearena, nola erakunde publikoena. Bide horretan, burujabetza pertsonala, politikoa eta materiala eskuratu behar dugu, herri prozesu horizontal eta komunal baten baitan.

Alde batetik, erresistentziak eta borroka sozialak piztu behar ditugu urgentziazko egoeren aurrean: lan-baldintza duinen aldekoa, etxegabetzeen aurka, erraustegiaren

edota frackingaren aurka, transgeniko eta laborantza bakarreko ereduen aurka, abortu eskubidearen alde, etxeko langileen lan-baldintza duinen alde, pentsioen pribatizazioaren aurka, hezkuntzako murrizketen aurka, etxebizitza eskubidearen alde, zaintza zerbitzu publiko eta duinen alde, multinazional eta korporazio handien aurka, etab.

Bestetik, alternatibak eraiki eta desmerkantilizazio prozesuak abiarazi behar ditugu esparruz esparru: deshazkunde proiektuak, zaintza taldeak, gune autogestionatuak, agroekofeminismoa eta elikadura burujabetza sustatzen duten prozesuak, korporazio handien edo bankuen desjabetzeak, espazio edo lur eremu kolektibizatuak berreskuratzea...

Gainera, gure denboraren jabe izateko urratsak eman beharko ditugu. Ongizate estatuaren falazian denbora produkzio kapitalistaren menean antolatu zen: produzitzeko, kontsumitzeko eta atsedean hartzeko denborak; hasieratik zaintzarako tempusak ezkutatu zirelarik. Sistemaren berregituraketa fase honetan denboraren banaketa hori erreala ez bada ere (esplotazio egiturak aldatzen doaz), gure bizitza zikloen gaineko kontrola berreskuratzea dagokigu. Nola banatuko ditugu lanak eta denborak era orekatuan? Zenbat denbora nahi dugu igaro lan merkatuan, zein baldintzatan? Zenbat denbora nahi diogu dedikatu zaintza-lanei? Zein modutan? Zenbat denbora nahi diogu eskaini parte hartze soziopolitikoari? Eta norberaren denborari? Kapitala erdigunetik alboratzeko, denbora antolaketa kapitalista eraldatu beharko dugu, periferietan kokatuta dauden denborei garrantzia eman eta bat-batekotasuna edota azelerazioaren aurrean beste bizi erritmo batzuk praktikatu.

Gatazka anitzetan dugu burujabetzarako beste palanka bat. Estatu espainiar eta frantsesak egoera baketsu eta normalizatu batean bizi garela sinestarazi nahi digute baina guk argi dugu hau ez dela gure bakea. Euskal Herriko gatazka politiko-armatua bakebidean jartzeko, estatuaren indarkeria jasan dutenen egia eta aitortza beharrezkoa da, baita espetxe politika hiltzailearen eta dispertsioaren amaiera eta preso politiko guztien etxeratzea ere. Bestetik, indarkeria matxistak kolpatzen, bortxatzen, erailtzen, epaitegietan zalantzan jartzen... jarraitzen gaituen bitartean, ez dugu bakerik izango. Autodefentsa feministaz erantzuten jarraituko dugu, eta komunitate zein erakunde publikoek biolentzia matxistari aurre egiteko tresna eraginkorrak aktibatzen garaia da. Ezinbestekoa da bakegintzan eta justizian begirada feminista txertatzea. Gatazka elkarloturik ulertu, borrokatu eta konponbidean jarri behar ditugu. Horretarako, emakumeon\* eta feministon parte-hartzea hauspotu behar da, bai bakegintzan, bai justiziaren inguruko eztabaidetan.

Gure komunitate eta lurraldeetan eman diren gatazkek eragin zuzena izan dute guregan. Gatazka politiko armatuaren, patriarkatuaren edo klase gatazkaren ondorioz, zauri edo orban ugari ditugu. Gure gorputzak politikoak dira eta sistemari aurre egiteko burujabetza gure baitan hasten dela ulertzea estrategikoa dela deritzogu. Pertsona hauskorrak eta zaugarriak gara, gure gorputzak dira lehenbiziko lurraldea eta osatze prozesuak kolektiboki eta politikoki lantzeko beharra daukagu. Gure bigarren lurraldea gure ingurumena da eta toxikoz beteta dago, horregatik elikagai osasuntsuak (eta baldintza duinetan ekoiztuak), haziak eta lurrak berreskuratzea osatze prozesuen (osotasuna berreskuratzearen) parte da.

Halaber, herritarren eskubideak eta erabakitze bideak zabalduko duten erakundeak behar ditugu, parte-hartze modu erradikalak asmatuz eta udalgintzak horretarako ematen duen aukerak arakatu. Horregatik, burujabetza feminista EHko

autodeterminazio eta erabakitze eskubidearekin lotuta ulertzen dugu. Prozesu hori bultzatzeko komunitatearen ahalmena eta boterea eraiki behar dugu; boterea eskuratu eta (beste logika batzuen arabera) berreraiki behar dugu. Herri botere(tze)az bultzatu nahi dugu trantsizio feminista, herri erakundetzean eta demokratizazioan sakontzeko. Demokrazia pribatizatzen ari den honetan, herriak sortutako euskal estatu-erakundeak nahi ditugu, gure jendartearen praktika, behar eta desiren isla izango direnak. Erakundetze prozesuak beste iraultza sozial, politiko eta kultural zein ekonomikoekin batera garatu behar dira, desiatzen dugun Euskal Herri feministaren eratze prozesu izateko.

Modu honetan, bizitza duina erdigunean jartzeko helburua duten instituzio sozioekonomikoak asmatu behar dugu publiko eta komunitarioaren artean dauden hibridoak esploratuz. Hibrido horien adibide izan daitezke, esaterako, Oreretako gazte etxebizitza kooperatiba, Nafarroako haur eskola guztietan elikadura burujabetza sustatzen duten bertako ekoizleekin lan egitea edota greba feministan gatzetxe zein lokal publikoetan antolatu ziren zaintza gune komunitarioak.

Burujabetza feminista prozesu demokratiko bat izan behar da, irekia, parte-hartzailea eta erradikala; komuna den hori eraikitzen eta defendatzen hezurmamituko dena. Komuna izateak esan nahi du baliabideak ez direla inoren jabetza, ezta instituzioena ere, komunitatearen jabetza baino ez; justuki, bere biziraupenaren ardura hartu, auto-zaintzea zein lurraldea zaintzea erabaki duen komunitatearena. Hau, herri antolakuntzaz lortuko den zerbait da, edo ez da lortuko.

Labur esanda, burujabetza feminista ez da burujabetza jakin bat, ezta gainerako burujabetzak barnebiltzen dituen aterki bat ere. Baina, aldi berean, burujabetza anitzak abian jartzetik dator. Hain zuzen ere, Euskal Herrian baditugu hainbat esperientzia eta beren artean artikulatuz gero, proiektu hegemoniko kapitalista arrakalatzearaz gain, ezegonkortasuna sorrarazi dezaketenak. Esan nahi baita, eredu alternatibo homogeneoa izan ordez, askotariko bideak dituen prozesua dela burujabetza feminista.

Finean, planteatzen duguna harreman sozial kapitalisten eraldaketa prozesu sakona da, jakin arren, harreman horiek heteropatriarkalak eta arrazistak direla berez. Ekonomiaren beste antolaketa bateranzko aldaketa artikulatzeko subertsio marko komuna marraztu nahi dugu. Jakin badakigu, horrek ongizatearen iruditegi kapitalista iraultzea eskatzen duela. Gure nahiak eta ametsak kapitalismoari lotuta daude eta irudimenari eragiten gabilta mundu posible berrien narrazioak sortzeko.

#### **4. NOREKIN EGINGO DUGU PROZESUA?**

Subjektu politiko feminista anizkoitza osatzeko, zapalkuntza ezberdinen aurrean gorpuzten ditugun subjektibotasunak aintzat hartzen ditugu. Zentzu horretan, identitateak despolitizatu eta testuingurutik isolatzen diren planteamenduetatik aldentzen gara. Identitateez hitz egiteko, honen dimentsio ideologiko, sinboliko eta kulturalaz haratago, ekonomiatik eta politikotik begiratu behar ditugu.

Bilgune Feministaren sorreratik ulertu genuen emakume izateak ez dituela gure menderakuntzaren ertz guztiak azaleratzen: gure esperientzia genero, klase eta nazioaren bitartez artikulatzen baita. Horrela izendatu gabe, gerora hainbeste zabaldu den interseksionalitate deritzona praktikatzen ari ginen. Hots, gure errealitatea hainbat zapalkuntzen elkargunetik bizitzen eta aztertzen ari ginen. Ikuspegi honetatik ere ulertu

dezakegu, zapalkuntza hirukoitzak denborarekin beste ertz batzuekin topo egin duela, esaterako, genero binarismoa eta derrigorrezko heterosexualitateak sortzen dituenak.

Klasea ulertzeko, emakume/gizon binomioa sistema kapitalistarentzat ezinbestekoa dela jakin dugu: familia nuklear heterosexualaren funtzio ekonomikoa sistema birproduzitzen duen heinean, emakumeek musu-truk egiten dituzten lanak kapitalarentzat sekulako plusbalioa sortzen baitute. Honek zeregin bat jarri du borroka antikapitalistaren erdigunean: sistemari erasotzeko, haren ardatz heteropatriarkala suntsitu beharra. Era berean, sistema arrazismoaz, kolonizazioaz eta inperialismoaz baliatzen da bizirauteko. Horregatik, praktika antiarrazista eta dekoloniala barnebiltzeko erronka dugu, gure arteko desorekak identifikatzera eta izendatzera ausartu beharrea gaude. Zapalkuntzen elkargunez aritzeak gure pribilegioez aritzea dakar.

Horrenbestez, gaur mundu mailan emakumeen, migratuen, subalternoen borroketatik indarberritzen ari dira egun borroka antisistemikoak eta aliantza antikapitalistak. Aniztasuna ez da klase borrokaren arazoa; kontrara, honen osaketa askotariko borroken artikulazioan datza. Herritarren zatiketa eta atomizazioa gaingitu nahi badugu, borroken arteko uztarketa findu beharko dugu, komunak diren esplotazio bideetatik ekinda, eta espezifikoa diren dominazio egoerak aitortuta.

Ondorioz, subjektu bat eta bakarra aldarrikatzeak ez dauka zentzurik, ezta borroken mailakatzea ere. Askabide nagusi batek ez digu menpekotasun guztietatik libre egingo. Sistemaren ertz guztietatik borrokatu behar gara: bide ugariak behar ditugu, erritmo ezberdinak eta subjektu politiko anizkoitzaren artikulazioa. Sistema honek sortzen dituen bazterren arteko aliantzak eta zubi lanak egitea gure arma zorrotzenetakoa bihurtu zaigu.

Burujabetza feminista emakumeon\* bizitzetatik abiatzen dugu, kapitalismoaren berregituraketaren fokoan gaudelako. Kapitalismoa globalaren berrantolaketa saiakera autoritarioaren aurrean, emakumeok\* protagonismoa hartu dugu eta lehen lerroan gaude.

Aurrera urratsak ematen jarraitzeko Mugimendu Feminista mintzakide politiko erreala eta indartsua izatea derrigorrezkoa da. Beraz, herri prozesu honetan dugun lidergotza kolektiboa, interlokuzioa eta intzidentzia maila handitzeko erronka dugu. Ez dugu botere kuota hutsa nahi, politika guztietan feminismitik eragiteko eta botere egiturak iraultzeko ari gara.

Ez dago errezeta bakarra, dominazio anitzeko sistema bada, alternatibak ere anitzak izango dira. Batzuk ardatz zehatz batean fokalizatuko dira, baina denek erantzun beharko liokete osotasunari. Dimentsio berriak barnebildu behar ditugu gure agendan Mugimendu Feministaren potentzial kritikoa indartzeko: elikadura, energia, klima, zorra, migrazio politikak, lurraren defentsa... Horrekin batera, herri mugimendu ezberdinekin elkarlana ezinbestekoa da (ikasle mugimendua, sindikala, autogestioaren aldekoa, ekologista, internazionalista, erabakitze eskubidearen aldekoa...).

Feminismoak egiten gaitu herri. Eraiki dezagun bada, gure herriaren burujabetza feminista elkarri begiratzuz eta elkarrekin boteretuz.



**AGENDA COMÚN PARA SITUAR NUESTRAS VIDAS EN EL CENTRO Y SOBERANÍAS:  
Poner la vida en el centro es cuestión de soberanía**

**Ponencia de Bilgune Feminista**

**1. ¿A QUÉ NOS ENFRENTAMOS? ANÁLISIS DE LA SITUACIÓN**

El mundo que conocemos se está deshaciendo. El sistema capitalista ha llegado a sus límites:

- 1) límite económico: el capitalismo no puede garantizar las tasas de crecimiento que ha tenido hasta ahora;
- 2) límite ecológico: el sistema ha agotado los recursos para seguir adelante.
- 3) límite social: nos han llevado a una crisis de reproducción social sin precedentes, estamos viviendo procesos de exclusión de sectores sociales cada vez más amplios.

Para hacer frente a esos límites, el sistema está en un ciclo de refundación. De un capitalismo que pretendía seducirnos con las promesas de progreso, igualdad y bienestar social estamos transitando hacia un capitalismo sin máscara, que reconoce espacio social sólo para unas pocas personas. Van en aumento los ámbitos que gobierna el poder corporativo mientras se apropia de nuevos territorios y recursos, crea nuevas formas de explotación y lleva al extremo la precarización de nuestras vidas. Para garantizar su supervivencia (es decir, ante el desafío de restablecer los procesos de acumulación del capital y apropiarse del control sobre los recursos) está profundizando en la explotación de la clase trabajadora, en las políticas antirracistas y en los pactos patriarcales, utilizando la violencia y el autoritarismo, y poniendo en evidencia que estamos ante un sistema de múltiples opresiones. Dejando claro que es un sistema biocida.

- Con el fin de superar los límites económicos, están aumentando los procesos de mercantilización (intentos de privatización del sistema sanitario, vientres de alquiler, poner precio a las semillas...) y el estado está haciendo dejación de sus responsabilidades sociales, se está dando una enorme pérdida de derechos (reforma del sistema de pensiones, recorte de la RGI, reformas laborales, políticas económicas europeas extremadamente austeras...)

- Como en muchas ocasiones nos ha dicho el Movimiento ecologista, para superar los límites del ecosistema, se han garantizado los recursos materiales para que el sistema siga adelante, mediante el expolio y la expropiación de los países del sur o a expensas de las futuras generaciones. Ahora están profundizando en las políticas neocoloniales mediante pactos mercantiles y de inversión internacionales (TTIP, CETA...), garantizando los asesinatos y la represión contra los pueblos indígenas que defienden la tierra, e impulsando las industrias extractivas en cualquier parte (fracking) y de cualquier manera (fuego en la Amazonía).

